**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA**

**COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO**

**Espediente: 1HI-008/14-P03**
KANPEZUKO UDALA

Kanpezuko Hiri-antolamendurako Plan Nagusia.

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

**ZIURTATZEN DUT:** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean, uztailaren 23an, 3/2014 bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuten, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

**I-** Kanpezuko udalerriko Hiri-antolamendurako Plan Nagusian azaldutako lurralde-eredua balioestea, honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea; Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legea; eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen 5/1993 Legea. Lotesleak diren gaiei dagokienez, honela balioesten du:

**1.- INGURUNE FISIKOA.**

**1a.- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetara egokitzea.**

- Aldeko irizpena eman zaio lurzoru urbanizaezinerako proposatutako zonifikazioari, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 8. kapituluan ezarritako izendapen eta irizpideekin bat baitatoz.

- Espediente horrek espresuki aipatu behar du abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretua bete beharko dela.

**1b.- Araba Erdialdeko Lurralde Plan**

**Expediente: 1HI-008/14-P03**
AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO
Plan General de Ordenación Urbana de Campezo.

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO**: que en la Sesión 3/2014 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 23 de julio, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguiente acuerdo:

**I.- En materia de Ordenación del Territorio:**

**I-** Valorar el Modelo Territorial planteado por el expediente de “Plan General de Ordenación Urbana del Municipio” de Campezo de conformidad con lo establecido en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco, y en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos, cuyo carácter de informe es vinculante:

**1.- MEDIO FISICO**

**1a.- Adecuación a las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

- Se informa favorablemente la zonificación de SNU propuesta, por adecuarse a las denominaciones y criterios de las Categorías de Ordenación del capítulo 8 de las Directrices de Ordenación Territorial.

- El expediente tiene que mencionar expresamente la necesidad de cumplimiento del Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas.

**1b.- Adecuación al Plan Territorial Parcial**

**Partzialera egokitzea.**

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, Araba Erdialdeko LPPera egokitzen baita, honako arlo honetan izan ezik: EAEko Jarduera Ekonomikoen eta Merkataritza-ekipamenduen LPSak arautzen dituen jarduera ekonomikoei buruzko alderdiak, LPPak bere egiten dituenak.

**1c.- EAEko Erreken eta Ibaien Ertzen Antolamendurako LPSera egokitzea.**

- Dokumentazioak agiri grafikoan eta idatzian zuzen aipatu behar ditu hiri-lurzoruan eta zoru urbanizagarrian dauden ibilguei dagozkien urruntze-tarteak. Hain zuzen ere, LPSeko F puntuan zehaztutako gutxieneko eraikuntzen urruntze-tarteak bete behar dira. Tarte horiek garapen-planeamendurako baldintza lotesle gisa ezarri behar dira, eragina duten eremu bakoitzaren araudi zehatzean.

- Urez bete daitezkeen tarteei dagokienez, espedientea URA-Uraren Euskal Agentziari bidaliko zaio, horrek bere balioespena egin dezan.

**1d.- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialera egokitzea.**

- EAEko Hezeguneen LPSari dagokionez, aldeko irizpena eman zaio espedienteari, plan horretara egokitzen baita. Dena dela, gomendatzen da zoru ez urbanizagarriko antolaketa planoetan hezeguneak kokatzea.

**1e.- EAEko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialera egokitzea.**

- Espedientearen dokumentazioak EAEko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialean aurreikusita dagoen II Multzoko honako eremu honen kokapena jasoko du: Cruz de Alda-Arlaba.

**2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK**

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, azpiegituren eta zerbitzuen sareen arloetan.

- Dena dela, Arabako Foru Aldundiko Garraio Sailari bidali zaio espedientea, balorazioa egiteko, errepideen arloan eskuduna baita.

**de Álava Central.**

- Se informa favorablemente el expediente en relación a su adecuación al PTP de Álava Central, salvo en aquellos aspectos de actividades económicas que regula el PTS de Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales de la CAPV, y que el PTP asume.

**1c.- Adecuación al PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV.**

- La documentación deberá plasmar de manera correcta en la documentación gráfica y escrita todos los retiros respecto a cauces en Suelo Urbano y Urbanizable. Concretamente deben cumplirse los retiros mínimos de edificación definidos en el apartado F del PTS. Estos retiros deben establecerse como condición vinculante para el planeamiento de desarrollo, en la Normativa Particular correspondiente a cada ámbito afectado.

- En lo que respecta a inundabilidad, se da traslado del expediente a URA, para su valoración.

**1d.- Adecuación al Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV.**

- Se informa favorablemente el expediente en lo que respecta a su adecuación al PTS de Zonas Húmedas de la CAPV. No obstante lo anterior, se sugiere que los planos de ordenación de suelo no urbanizable incluyan la localización de los humedales.

**1e.- Adecuación al Plan Territorial Sectorial de Energía Eólica de la CAPV.**

- El expediente debe recoger en su documentación la localización de Cruz de Alda-Arlaba, emplazamiento del Grupo II previsto por el PTS de Energía Eólica de la CAPV.

**2.- INFRAESTRUCTURAS Y SERVICIOS**

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo a infraestructuras y redes de servicios.

- No obstante lo anterior, se remite la valoración del expediente en materia de carreteras al departamento de la Diputación

Foral de Álava competente en la materia.

**3. EREMU LIBREAK ETA EKIPAMENDUAK.**

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, ekipamenduen eta espazio libreen arloetan.

**4. BIZITOKITARAKO ETA EKONOMIA-JARDUERETARAKO KOKALEKUAK.**

**4a.- Bizitokien eredua eta kuantifikazioa.**

- Bizitegirako ereduari dagokionez, espedienteari aldeko irizpena eman zaio, bizitegirako proposamen berriak jadanik kalifikatuta dauden lurzoruetan kokatzen baitira; zoru artifizial gehiagoren kontsumoa ez dakarten lurzoru egokitze txiki batzuk baino ez dira egin behar.

- Santikurutze Kanpezun proposatzen diren 486 etxebizitza berriak Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialean eta LAGetan ezarritako irizpideak ezartzean lortzen diren emaitzekin bat dator.

- Espedienteari aldeko irizpena eman zaio, honako gune hauetako bizitegirako lurzoru kopuruari dagokionez: Antoñana, Orbiso, Oteo eta Bujanda.

- Etxebizitza Sailburuordetzari bidali zaio espedientea, Planak proposatzen dituen babestutako etxebizitzei buruzko balorazioa egiteko.

- Espedienteak eraikigarritasun-balioak jarduketa integratuetan adierazi behar ditu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 77. artikuluak, eta Hirigintza-estandarren 123/2012 Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek ezarritako baldintzei jarraiki.

**4b.- Jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruaren antolamendua eta kuantifikazioa.**

- Aurkako irizpena eman zaio Santikurutzen proposatutako ekonomia jarduerarako sektoreari (SAE1 SC), honekin gainditzen baitira Ekonomia-Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza-Ekipamenduak sortzeko LPSak baimentzen dituen jarduera ekonomikoetarako erreserbak.

- Gomendatzen da Antoñanaren hegoaldean

**3.- EQUIPAMIENTOS Y ESPACIOS LIBRES**

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo a Equipamientos y Espacios Libres.

**4.- ASENTAMIENTOS RESIDENCIALES Y DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS**

**4a.- Cuantificación y modelo territorial residencial.**

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo al modelo residencial, en tanto que las propuestas en materia residencial se localizan suelos ya calificados, únicamente con leves reajustes de suelo que no suponen un consumo mayor de suelo artificial.

- La capacidad residencial planteada en Santa Cruz de Campezo de 486 viviendas encaja en la capacidad residencial resultante de aplicar los criterios del Plan Territorial Parcial de Álava Central y de las DOT.

- Se informa favorablemente el expediente en cuanto a cuantificación residencial se refiere en los núcleos de Antoñana, Orbiso, Oteo y Bujanda.

- Se remite la valoración del Plan en materia de vivienda protegida al informe de la Viceconsejería de Vivienda, a quien se ha remitido el expediente para su valoración.

- El expediente debe señalar las edificabilidades de las áreas de actuación integrada, en las condiciones señaladas en el artículo 77 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo y en los artículos 3 y 4 del Decreto 123/2012, de Estándares Urbanísticos.

**4b.- Ordenación y cuantificación del Suelo de Actividades Económicas**

- Se informa desfavorablemente el sector de actividades económicas propuesto para Santa Cruz (SAE1 SC), al suponer que se superen las reservas de suelo máximas admisibles para actividades económicas en el municipio, según la categorización del PTS de Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales.

- Se sugiere que se desclasifique como urbano

isolatuta dagoen jarduera ekonomikoetarako eremuari (OD AE1 A) hiri-lurzoruaren sailkapena kentzea. Izan ere, sailkapen hori ez dator bat kokatzen den lurraldearen izaerarekin.

- OD AE1 SC eta MOA SI1 SC eremuek aipatu beharko dute Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LPSak ezarritako honako parametro hauen mugaketa: plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia eta gehienez eraikitako sabai-azalera. Udalerriaren sailkapenaren arabera, plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia 15.000 $m^2$ eta gehienez eraikitako sabai-azalera 5.000 $m^2$koa da.

- Dokumentazioak jarduera ekonomikoetarako poligono bakar bat zehaztuko du, Ekonomia-Jardueretarako eta Merkataritza-Ekipamenduen LPSaren 14.2.d artikuluan ezarritakoaren arabera.

**II-** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. puntua Batzordeari buruzkoa da, eta horrek xedatutakoaren arabera, txosten honetan aipatzen diren baldintzak sartu eta gero, espedienteak behin-betiko onespena lortu ahal izango du, Batzorde honen txosten berririk gabe.

**II.- Uraren arloan:**

URA-Uraren Euskal Agentziak, 2014ko uztailaren 16an, aldeko txostena eman zuen, honako erabaki lotesle hau betetzeko baldintzapean:

1) Antoñana eta Santikurutze Kanpezun urez bete ahal diren eremuetan, EAEko Erreken eta Ibaien Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren aldaketaren E.2 atalean jasotako uholdeen kontra babesteko araudi zehatza ezarri beharko da.

2) Ibai edo erreken ondoko eremu berrien mugetan, geroko garapen-tresnek eremu libreei dagokien ahalik eta azalerarik handienean egingo dute pilaketa. Santikurutze Kanpezuko industrialdearen kasuan, urbanizaziorik gabeko urruntze-tarteak errespetatuko dira, dagoeneko den industrialdean egin den bezala, eta saihestuko da ekialdean dagoen errekaren ibilgua eta errotondak elkartzea.

el suelo para actividades económicas aislado al sur de Antoñana (OD AE1 A), por considerarse que esta clasificación no se corresponde con la naturaleza del territorio en que se ubica.

- Los ámbitos OD AE1 SC y MOA SI1 SC deben señalar la limitación del PTS de Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales, de limitar la superficie de explanada y el techo máximo edificado para gran equipamiento comercial, que para la categorización del municipio, es una superficie máxima de plataforma explanada de 15.000 $m^2$ y superficie máxima de techo edificado de 5.000 $m^2$.

- La documentación debe definir un único polígono de actividad económica, en atención al artículo 14.2.d del PTS de Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales.

**II-** A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

**II.- En materia de Aguas:**

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 16 de julio de 2014, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a la siguiente determinación de carácter vinculante:

1) En las zonas inundables de Antoñana y Santa Cruz de Campezo se deberá aplicar la normativa específica sobre protección contra inundaciones recogida en el apartado E.2 de la Modificación del PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV.

2) En los límites de las nuevas áreas que colindan con ríos o arroyos los instrumentos de desarrollo posteriores dispondrán la acumulación junto a estos de la mayor superficie posible correspondiente a Espacios Libres. En el caso de la zona industrial de Santa Cruz de Campezo se respetarán los retiros sin urbanización, tal y como se ha hecho en el polígono existente, evitando la coincidencia de rotondas con el cauce del

arroyo situado al este.

3) Lurzorua kudeatzeko planoetan ez ezik, garatu gabeko eremuen lerrokatzeetakoetan edo HAPNan aurreikusitako jarduerak dituztenean ere, ibai-ibilguekiko urruntze-tarteei dagozkien lerroak agertu beharko dira, bai aldatutako EAEko Erreken eta Ibaien Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren zehaztapen orokorrengatik, bai EAEko Erreken eta Ibaien Ertzak Antolatzeko LPSren aldaketaren E atalean jasotako uholdeen kontra babesteko araudi zehatza ezarri behar izanez gero.

3) En los planos de gestión del suelo, así como en los de alineaciones de las zonas sin desarrollar o con actuaciones previstas en el PGOU deberán figurar las líneas correspondientes a los retiros a los cauces, tanto por las determinaciones generales del PTS modificado de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV como cuando proceda por aplicación de la normativa específica sobre protección contra inundaciones recogida en el apartado E de la Modificación del PTS de Ordenación de Ríos y Arroyos de la CAPV.

4) SG IB 2 SC sistema orokorra batez ere Jabari publiko hidraulikoan dago; beraz, lursail hori ur-ibilgu eta ur-masen sistema orokorraren barruan egon beharko da (Ega ibaia), eta SG IB 2 SC sistema orokorrean kokatu beharko da, Santikurutze Kanpezuko HUA kokatuta dagoen 1. poligonoko 2064. lursailean, alegia.

4) El Sistema General SG IB 2 SC se encuentra en su mayor parte en Dominio Público Hidráulico, por lo que esta parcela debe formar parte del sistema general de cursos y masas de agua (río Ega) y situarse el sistema general SG IB 2 SC en la parcela 2064 del polígono 1, ocupada por la EDAR de Santa Cruz de Campezo.

5) Behin betiko onespena eman baino lehen, hornikuntza eta saneamenduaren erakunde kudeatzaileen adostasun-txostenak jaso beharko dira; horien bidez, justifikatuko da tokiko saneamendu-sareak nahikoak direla aurreikusitako garapenen ondorioz sortuko diren karga berriak jaso eta tratatzeko, eta azpiegiturak nahikoak direla garapen berriak hornitzeko.

5) Antes de la aprobación definitiva será necesario presentar Informes de conformidad de los Entes Gestores del Abastecimiento y Saneamiento que certifiquen la suficiencia de las redes de saneamiento locales para recoger y tratar las nuevas cargas derivadas de los desarrollos previstos y suficiencia de las infraestructuras para el abastecimiento de los nuevos desarrollos.

6) Jarduera guztiek, bai Jabari publiko hidraulikoan, bai horren zorgune eta zaintzaguneetan, edozein lan hasi aurretik, arroko erakundearen baimen-espedientea izan beharko dute. Hori URA-Uraren Euskal Agentziaren Arro Mediterraneoen Bulegoan izapidetu beharko da.

6) Todas las actuaciones, tanto en Dominio Público Hidráulico como en sus zonas de servidumbre y policía, deberán ser objeto de un expediente de autorización previa del Organismo de Cuenca que deberá ser tramitado ante la Oficina de las Cuencas Mediterráneas de esta Agencia Vasca del Agua-URA.

**III.** Espediente hori behin betiko onartzeko eskumena duen organoari bidaltzea ondokoek emandako txostenak: Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza (I. eranskina), URA-Uraren Euskal Agentzia (II. eranskina) eta Etxebizitza Sailburuordetza (III. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz.

**III.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental (Anexo I) por URA-Agencia Vasca del Agua (Anexo II) y por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo III), que se acompañan a la presente certificación."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2014ko uztailaren 23an.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 23 de julio de 2014.

SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIA

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga